

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ ASTIGARRAGA DBH ORAIN

Beste asanblada bat, etzi

Beste asanblada baterako deia egin du Astigarragan DBH Orain plataformak. Asteazkenean izango da, 19:00etan, Musika eskola ondoko aretoan. ||

■ HERNANI 'BALIABIDEAK BATU, EZ ERREFUSATU'

Informazio-puntua gaur, Antziolan

Baliabideak batu, ez errefusatu kanpainaren baitan, Antziolan jarriko du gaur Udalak informazio-puntua. Goiz eta arratsalde izango da bertan, hau da, 09:30-13:30 eta 16:00-20:00 bitartean. ||

■ ASTIGARRAGA LITERATUR SOLASALDIA

'La voz del Faquir', gaur

Jorge Carreroren eskutik, beste liburu baten inguruan arituko dira gaur liburutegian. Hain zuzen, Harkaitz Canoren *La voz del Faquir* izango dute gaur hizpide, arratsaldeko 19:30etatik aurrera. ||

■ HERNANI PLAX!

Bigarren saioa etzi, tailerrak

Erditze eta seme-alaben ondorengo sexualitatea tailerraren bigarren saioa izango da etzi, Elena Jimenez Jimenez Plax! Zerbitzuko sexologaren eskutik. 17:00etatik 19:00etara izango da Biterin. ||

■ HERNANI HITZALDIA

'Zigor gabeko loria', hizketagai

Komikien inguruko solasaldia izango da bihar, liburutegian. Oraingo honetan, Josean Olaberren *Zigor gabeko loriaz* arituko dira, 20:00etan hasita. ||

■ ASTIGARRAGA UDALA

Plenoa, bihar

Hileko azkeneko asteartea denez, bihar bilduko da Astigarragako Plenoa ohiko deialdian. 19:00etan izango da, udaletxean. ||

■ HERNANI DOBERA EUSKARA ELKARTEA

Erronkalariren esperientziak, liburuan jasota

Euskara Ari Du egitasmoaren 'Baietz Hernanik!' erronka laburbiltzen duen liburua idatzi du Amagoia Mujikak; bihar aurkeztuko dute, arratsaldeko 19:00etan, Biteri Kultur Etxean.

HIZKUNTZA-ohiturak aldatzea helburu, *Baietz Hernanik!* erronka bota zuen Euskara Ari Du egitasmoak 2018an. Ia urtebete iraun zuen esperientzia izan zen; urteak eman zuena, liburuan bildu dute.

Bihar aurkeztuko du Dobera Euskara Elkarteak, jendaurrrean. Arratsaldeko 19:00-

Aurkezpenera bertaratzen diren herritarrek liburua jasoko dute, debalde.

etan jarri dute zita, Biteri kultur etxean.

Amagoia Mujikak idatzia
Amagoia Mujika Telleria kazetariak idatzitako liburua da, eta erronkaren nondik-norakoak azaltzeaz gain, hainbat erronkalariren esperientziak ere jasotzen ditu.

Hain zuzen, biharko aurkezpeneran, haiek izango dira protagonista. Mujikak egingo

du aurkezpenera, eta erronkalariek hartuko dute hitza, baita ere.

Liburua, aurkezpeneran bertan

Jakinarazi dutenez, aurkezpenera bertaratzen diren herritarrek liburua jasoko dute, debalde. ||

■ HERNANI HERNANI ERABAKI

22 proposamen aurten, herritarren esku

Gaur aurkeztuko dituzte, aurrenekoz, aurrekontu parte-hartzaileen bozkatzefasera iritsi diren proposamenak. Arratsaldeko 18:00etan izango da, udaletxeko areto nagusian.

AZKENEKO fasean dago jada Hernani Erabaki aurrekontu parte-hartzaileen prozesua. Gaur hasi eta azaroaren 24ra arte, 2020ko udal aurrekontuaren 500.000 euro zertara bideratu nahi duten erabakiko dute hernaniarrek.

Aurten, 22 proposamene-tatik 10 hautatu beharko dituzte 16 urtetik gorakoek. Gaur jakinaraziko dute 22 horiek zeintzuk diren; arratsaldeko 18:00etan izango da hori, udaletxeko areto nagusian.

Ordutik aurrera, hainbat bide izango dituzte herritarrek botoa emateko: *erabaki.hernani.eus* webgunean egin ahal izango da; udal eraikinetan eta auzo lokaletan dauden postontzien bidez; baita auzoz auzoko saioetan ere (egutegi osoa: *www.kronika.eus*)

Latsunbeberin izango da aurreneko saioa etzi, 19:30etan, auzoko lokalean. ||



Udaletxeko areto nagusian egingo dute lehenengo aurkezpenera.

Funeraria VASCONGADA
Zure eskura
24h-ko zerbitzua
943 376 980
Orkolaga, 2-4
943 55 79 01
HERNANI
www.funerariavascongada.com

K
ATZA
Nagusia 32, ASTIGARRAGA
943 55 49 89
ikatzataberna@gmail.com

Latxe
Urumeako ur-tükitan barrera
13. alea kalean!
latxe@kronika.eus 943 33 08 99

GAUR Lainotuta hasiko da eguna bihar, baina tenperaturak epeltzea izango da horien eragin bakarra. Eguedian, eguzkiari lekua utziko diote, eta iluntzean, lainoak sartuko dira, berriro ere. **Min.14° / Max.23°**

BIHAR Lainoak eta urdinguneak tartekatuko dira bihar. Egunaren bukaeran, aldiz, lainoak gailendu eta euri pixka bat egin dezake. Norabide aldakoreko haize ahula ibiliko da. Tenperaturak behera: **Min.14° / Max.20°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaeuz: **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI LANBIDE HEZIKETA

30tik gora atzerritar bisitan, Erasmus + proiektuaren bueltan

'Mathematics Revisited' proiektuarekin lotuta jaso du Heraniko Lanbide Heziketak Europako irakasle eta ikasleen bisita; 30tik gora izan dira.

BISITA berezia jaso zuen aurreko astean Heraniko Lanbide Heziketak. Erasmus+ programaren barruan, atzerriko irakasle eta ikasleak izan dira bertan.

Lanbide Heziketatik azaldu dutenez, 30tik gora ikasle eta irakasle izan dira bertan, Europan zeharreko herrialdeetakoak denak: Grezia, Malta, Errumania, Suedia eta Austria, hain zuzen.



Bilbon lan ziren ikasle eta irakasleak, besteak beste.

Mathematics Revisited proiektuaren baitan

Mathematics Revisited proiektuaren baitan jaso dituzte bisitariak. Iaz martxan jarri zuten proiektu honen helburua da, hain justu, «matematikekin lotura duten ekintzak burutzea».

Hori horrela, egun hauetan zehar, «matematika ardatza izanda, artea, literatura, eta historiarekin lotutako hainbat ekintza burutu dituzte, eta bide batez, Euskal Herria ezagutzeko aukera izan dute».

Aurreko urtean Suedian eta Errumanian izan ziren

Heraniko ikasle eta irakasleak; aurtun, aldiz, harrera eskola izan da.

Hurrengo urterako ere badeute helmuga: Malta. Bertara joateko aukera izango dute, hain zuzen, Heraniko eta beste herri batzuetako hainbat ikaslek. ||

HERNANI PLENOA PSE-EE

Gobernu-programa zehazteko eskatuko du PSE-EEK, bihar

Arratsaldeko 19:00etan izango da urriko Plenoa, udaletxean.

PLENORAKO deialdia egin du Udalak biharko. 19:00etan izango da, udaletxean.

Denera, hamalau puntu aztertuko dituzte, tartean, PSE-EEK aurkeztutako mozioarena. Ohar baten bidez azaldu due-

nez, Udal gobernuari eskatuko dio «hilabeteko epean lau urte hauetarako gobernu-programa aurkeztu dezan». Ricardo Crespo bozeramailearen ustez, «gobernu baten kudeaketak programa koherente bat izan

behar du oinarri, eta legegintzaldia hasi zenetik hiru hilabetera ez dago gobernu-ekintza argirik. Ez dakigu beren lehentasunak zeintzuk diren; ezta zertan ahaleginduko diren gehien ere», azaldu du. ||

HERNANI OIALUME BILTOKIA



la bi orduz aritu zen Berri Txarrak taldea Oialumeko oholta gainean.

Lepo bete zuen Oialume, Berri Txarrak taldeak

Hilabete baino gutxiago falta da Berri Txarrak taldearen agurrerako, eta bitartean, areto txikietan jotzen ariko da Beude kontzertu sortari esker. Horetako bat Hernanin izan zen; herenegun lepo bete zuten Oialume Gorka Urbizuk, David Gonzalezek eta Galder Izagirrek. Ia bi orduko kontzertuan, publikoa poltsikoratzea lortu zuten. ||

HERNANI ELKARTE ARTEKO MUS TXAPELKETA

Elkarte arteko mus txapelketa, gaurtik

Gaur hasiko da Elkarte arteko mus txapelketaren 35garren edizioa, aurtun, Xalaparta elkarteak antolatuta. Gaur hasita, hiru egunez jokatu da aste honetan; denora, 12 partida jokatu dituzte. ||

GAUR, ASTELEHENA

- GOIZ EGUZKI A (Fernando-Agustin)-SANTA BARBARA A (Bixente-Narro)
- SAGASTIALDE A (Oscar-Zubi)-XALAPARTA A (Peli-Ramon)
- GOIZ EGUZKI B (David-Jose Mari)-SANTA BARBARA B (Ion-Gabi)
- SAGASTIALDE B (Josean-Javi)-XALAPARTA B (Txema-Goyo)

BIHAR, ASTEARTEA

- UR MIA A (Javier-Pello)-GURE TXOKO A (Hector-Antxon)
- ELUR TXORI A (Urtzi-Ekhi)-KAROBI A (Mikel-Joxe)
- UR MIA B (Jexux-Julian)-GURE TXOKO B (Angel-Manolo)
- ELUR TXORI B (Jose-J.A.)-KAROBI B (Gerardo-Nadia)

ETZI, ASTEAZKENA

- GOIZ EGUZKI A (Fernando-Agustin)-SAGASTIALDE A (Oscar-Zubi)
- XALAPARTA A (Peli-Ramon)-ETXEBERRI A (Maxi-Moises)
- GOIZ EGUZKI B (David-Jose Mari)-SAGASTIALDE B (Josean-Javi)
- XALAPARTA B (Txema-Goyo)-ETXEBERRI B (Euken-Mikel).

GOIZUETA 65 URTE GOITIKOEN FESTA

Festan apuntatzeko, bihar arte

Urtero bezala, 65 urte goitikoena izanen da asteburu honetan Umore Ona elkarteari esker. Larunbatean eta igandean izanen dira ekintzak; eta azken honetan, gainera, baita bazkari ederra ere. Gonbidapena jaso dute etxean 65 urtetik goiti duten goizuetarrek, baina joateko asmoa dutenek, bihar arte izanen dute apuntatzeko. Horretarako, gutuna bueltan entregatu beharko dute baieztapenarekin; Umore Ona elkartearen utzi beharko da, edo buzoiean sartu. ||

ASTIGARRAGA ELKARBIZI TALDEA

Azkeneko eguna, izena emateko

Euskal Kultura adierazpenak baketzearen aurrean hitzaldia antolatu du Elkorbizi taldeak ostegunerako. Inazio Mujika Iraola eta Eugenio Ibarzabal idazleak izango dira hizlariak. Astigarragako kultur etxean izango da, 19:00etan. Joan nahi duenak, gaur arte dauka aukera izena emateko: ganboiturri@gmail.com. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† MARITXU LARZABAL GOÑI

Herenegun hil zen Donostian, 91 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Anai-arrebak: Maria Jesus (†) eta Xanti (†), Miren Itziar, Inaxi (Lekaimena), Arantxa eta Jabi (†), Imanol (†); ilobak: Aintzane, Joseba Andoni eta Arantxa, Imanol eta Zuriñe, Arantxa eta Rober, Nagore eta Luis; iloba txikiak: Jon, eñaut, Lide, Oier; eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN SEBASTIAN MARTIRIA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Donostian, 2019ko urriaren 28an

OHARRA: Azken agurra senideen artean egingo da

IRAGARKI MERKEAK

Vanessa Soodeen: Coaching-psikologia, psikoterapia-Gestalt, Mindfulness, bakarkako terapia, bikote-terapia... Deitu: 666 197 211 vsodeen@gmail.com

Neska arduratsua lan bila helduak edo umeak zaintzen, edota garbiketa lanetan. Esperientziarekin. Deitu: 612 287 432

Gutxi erabilitako konpresore trifasikoa salgai. 500 €. Deitu: 688 651 438

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)